

## EREMUAK-EN BATZORDE TEKNIKOAREN AZALPEN OHARRA

Eremuak 2018 erakusketaren deialdiaren ebazpenari dagokionez, sortutako zalantzak argitze aldera, batzorde teknikoak honako hausnarketak partekatu nahi ditu.

Deialdiaren arabera, gutxienez 10 parte-hartzaile aukeratzea zen hasierako konpromisoa. Eta, 2014ko erakusketa erreferentziatzat harturik, ez zen aurreikusten 16 baino gehiago izango zirenik. Halere, aurkeztutako eskaera kopuru handiagatik (204), aukeratutako artista kopurua hasieran aurreikusitakoa baino handiagoa izatea erabaki zuen hautapen-batzordeak, haien proposamenen ikusgaitasuna lagundu eta aniztasuna agerian jartzeko. Erabaki horrek, baina, halabeharrez kontuan hartu behar izan zituen programaren aurrekontuen eta erakusketa-espazioaren mugak.

Gauzak horrela, hautapen-batzordeak hiru partaidetza mota zehaztu zituen. Alde batetik, “erakusketa-espazioa” izenekoak; 1.200 euroko ordainketa, ohikoa denez, erakusketak irauten duen bitartean obra lagatzeagatik. Bestetik, “performance eta ekitaldiak” eta “screening” izenekoak; 500na euroko ordainketa. Eremuak bere gain hartuko du erakusketa-espazioak, performanceek, ekitaldiek eta screeningek eragindako kostuak: obra espaziora egokitzearen kostua, proiektuak espazioan muntatzearen eta desmuntatzearen kostua, eta obra garraiatzearena. Erakusketa, parte hartzeko moduaren arabera segmentatuta egon arren, zentzu-unitatetzat hartzen da.

Hortaz, hartutako erabakien bidez, erantzuna eman nahi izan zaio deialdiaren oinarrietan aurreikusi eta islatu ezin zen ustekabearen sortutako premia bati. Edonola ere, jasotako ekarpen guztiak eskertzen ditugu, hurrengo deialdiei begira hobekuntzak egiteko prozesuan aintzat hartzeko.